

SANTURTZIKO UDALERRIKO EMAKUME TALDE EDOTA ERAKUNDEEI, ELKARTEEI, PERTSONA JURIDIKOEI ZEIN PERTSONA FISIKOEI PRESTAKUNTZARAKO, SUSTAPENERAKO, AHOEKULARITZARAKO ETA INFORMAZIOZARAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTU DUEN ARAUBIDEAREN ORDENANTZA.

1. artikulua.- Esparrua.

Ordenantza honen bidez Santurtziko udalerriko emakume talde eta/edo erakundeei, elkarteei, pertsona juridikoei zein pertsona fisikoei prestakuntzarako, sustapenerako, aholkularitzarako edo informaziozarako jarduerak antolatzekeo diru-laguntzak emateko araubidea finkatzen da. Horrela, araubide honen arabera eta honi aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera, ondoren agertzen den prozeduraren bidez eskatu beharko dira diru-laguntzak.

2. artikulua.- Xedea.

Diru-laguntzaren xede izango dira, ordenantza honetan ezarritako prozeduraren bidez, gure udalerriko emakumea trebatzea eta informatzea nahiz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea xede izanik, pertsona fisikoek edo juridikoek, nahiz Santurtziko Auzo Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dauden erakundeek, elkarteek edota taldeek antolatzen dituzten jarduerak, dagokien urtean egiten direnean eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituztenean:

- a) Pedagogia, gizarte, lana, osasuna, kultura, aisia edota familia bezalako arloetarako interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruzkoak izan beharko dira, eta emakumeak arlo guztietan parte hartzea nahiz gizarteak aukera-berdintasunaren inguruan kontzientzia hartzea ahalbidetu beharko dute.
- b) Interesa duten ahalik eta pertsona gehien joateko ordutegian egin daitezela.
- c) Kultura, hezkuntza edo aisialdia bezalako arloetan emakumearen parte hartzea bultzatu beharko dute.
- d) Zein jarduera egingo den eta jarduera non eta noiz egingo duten jakinarazi beharko die, Udalerriko gainerako elkarte, erakunde eta/edo emakume taldeei eta baita udalaren **Emakumearen Zerbitzuari**.
- e) Helburu berarekin ezin izango dute Udal honetako beste arlo edo zerbitzuren batetik diru-laguntzarik jaso eta ezta Udalaren organismo autonomoetatik ere.

3. artikulua.- Erakunde onuradunak

Lana behar den bezala egingo dutela bermatu eta Auzo Elkartearen Udala Erregistroan dauden emakume talde, erakunde, elkarte zein pertsona juridikoek edota pertsona fisikoek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntza horiek.

4. artikulua.- Eskabideak

Eskabideak Santurtziko Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira. Erregistroa Udaletxeko beheko solairuan dago, Cristóbal Murrieta etorbideko 6. zenbakian, eta eskaera aurkezteko erregistroko egoitzan lor dezaketen eskaera ofiziala bete beharko dute.

- a) Erakundearen, elkartearen edo emakumeen taldearen legezko ordezkariak duen pertsonak edo horretarako beste botere duenak (botere hori duela behar den bezala egiaztatu ondoren) sinatu beharko du eskaera, eta IFZ adierazi beharko dute bertan.
- b) Eskaerarekin batera egingo diren jardueren egitarau zehaztua aurkeztu beharko da eta gutxienez honako datu hauek eman beharko dira:
 - Jardueren deskribapena, aurrekontua guztira (gastuak eta diru-sarrerak), noiz egingo den, non egingo den (taldearen lokaletan, areto gelan, liburutegian, ikastetxeren bateko geletan, etab) eta nola egingo diren.
 - Jarduera burutu dadin pertsona fisikoak, elkarteak, erakundeak edota taldeak ze giza baliabide eta azpiegitura eskainiko dituen.
 - Zenbateko diru-laguntza eskatzen den.
 - Diru-laguntza sartzeko pertsona fisikoak, elkarteak, erakundeak edo/eta taldeak aurkeztu duen kontu zenbakiaren ziurtagiria, bankuak emandako ziurtagiria.
 - Jarduera nola ebaluatuko duten.

5. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea.

Diru-laguntzaren eskabideak urteroko deialdi-erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean aurkeztuko dira.

Epe horretan eta behar den bezala aurkezten diren eskaerak baino ez dira onartuko.

6. artikulua.- Osorik ez dauden eskaerak edo akatsen bat dutenak.

Eskaeretan aipatutako baldintza guztiak agertzen ez badira, interesdunei agindeia egingo zaie, jakinarazpena jasotzen dutenetik hamar asteguneko epean, ohartarazpenean adierazi zaizkion akatsak zuzen ditzan. Epe horretan ez balu eskatutako zuzenketa egin, eskaera atzera bota duzulakoan, beste tramiterik gabe artxibatu egingo da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

7. artikulua.- Ebazpena.

Udalak Gizartekintza eta Berdintasun Arloko **Emakumearen Zerbitzuaren** bidez hartzen duen erabakia, diru-laguntza ematea edo ez ematea adierazten duen erabakia, arrazoitua izan beharko da eta erabakian honakoa hauek zehaztu beharko dira:

- a).- Eskudirutan eman den diru-laguntzaren zenbatekoa.
- b).- Nola ordainduko den.
- c).- Azpiegiturak edota bestelako laguntzak utziko diren.

8. artikulua.- Diru-laguntzak ordaintzea.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ordainketa bakarrean egingo da, behin Tokiko Gobernu Batzarrak diru-laguntzak ematea ebazten duen dagokion erabakia hartu ondoren.

9. artikulua.- Aurrekontuaren zuzkidura.

Udalak, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, dagokion aurrekontu-zuzkidura egingo du, oinarri hauetan xedatutako prozeduraren arabera eskatutako diru-laguntzak eman ahal izateko.

Edonola ere pertsona fisiko, elkarte, erakunde eta/edo onuradun talde bakar bati ere ezin izango zaio aurrekontuaren %30a baino gehiagoko diru-laguntza eman.

10. artikulua.- Hautatzeko irizpideak.

Prestakuntzarako, sustapenerako, aholkularitzarako eta informazioa zabaltzeko interesgarri jotzen dituzten jarduera edo programak baloratu eta hautatuko ditu **Emakumearen Zerbitzuak**; betiere egokitzat jotzen den portzentajea eta araudiak ezarritako mugak kontuan hartuz. Diru-laguntza horiek emateko honako hauek hartuko dira kontuan:

- a).- Aurkeztutako jarduera edo egitarauaren kalitatea.
- b).- Urtean egingo diren jarduerak eta unean uneko jarduera jakinak.
- c).- Saioetan parte hartuko duten emakumeen kopurua.
- d).- Aurreko urteetan ekitaldia antolatu duten elkarte, erakunde edo/eta taldearen historia, aurrekariak eta esperientzia eta ekitaldi horietan lortu zuten parte hartzea.
- e).- Programa egitean Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzak erabiltzea.
- f).- Udalerriko gainerako emakumeen elkarte, erakunde eta/edo taldeei, egingo diren jardueren berri ematea.
- g).- Urte osoan lantzen diren kanpainen mezuak egingo diren programa edo/eta jarduerekin duten lotura.
- h).- Bizitzaren hainbat arlotan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bultzatuko duten ekintzak edo proiektuak, zuzenean zein zeharka bultzatuko duten ekintza edo proiektuak.

11. artikulua.- Diru-laguntza jasoko duten pertsona fisikoen edo juridikoen, elkarte, erakunde edota emakume taldeen konpromisoak.

Oinarri hauetan arautu diren diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona fisikoek zein juridikoek, elkarte, erakunde eta/edo emakume taldeek honako betebeharrak izango dituzte:

- a).- Diru-laguntza emateko oinarritzat hartu den jarduera egitea.
- b).- Eskatu duten diru-laguntzaren bidez, egin nahi zituzten jarduerak egin dituztela eta diru-laguntza horiek emateko ezarritako baldintzak bete dituztela ziurtatu beharko dio **Emakumearen Zerbitzuari**.
- c).- Emandako diru-laguntza eta laguntzak direla eta, egin beharreko ikuskapenak arazorik gabe egiteko laguntza eman beharko dute eta horretarako eskatzen zaien informazio guztia eskaintzeko erraztasunak eman beharko dute.
- d).- Helburu bera lortzeko beste laguntza eta diru-laguntzarik lortu duen jakinarazi beharko dio **Emakumearen Zerbitzuari**.
- e).- Diru-laguntza edo laguntza eskatzeorakoan IFZ eman beharko du.
- f).- Diru-laguntza jaso aurretik Emakumearen Zerbitzuak edo Udalaren beste sail batek lehenago emandako laguntza edo diru-laguntzak jaso duen edo ez egiaztatatu beharko da.

12 .artikulua.- Publizitatea.

Diru-laguntza lortu duen erakundeak egindako programen iragarkietan, programa dena delakoa dela eta nahitaez, Udaleko **Emakumearen Zerbitzuak** laguntza eskaini diola adierazi beharko du. Logotipoa euskaraz eta gaztelaniaz agertu beharko da eta Santurtziko Udaleko **Emakumearen Zerbitzuan** lortu ahal izango dute.

13. artikulua.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Diru-laguntza hori, eman zaien jarduerak egiteko baino ez da erabiliko.

Argia, telefonoa eta lokalen mantentze-gastuek, proiektuaren administrazioaren gastuek alegia, ezin izango dute emandako diru-laguntzaren % 10 gainditu.

Oinarri hauek arautu dituzten diru-laguntzen onuradunek ondoren agertzen agiriak aurkeztu beharko dituzte Cristóbal Murrieta etorbideko 6. zenbakian, beheko solairuko bulegoetan dagoen Udalaren Erregistro Orokorrean. Agiri horiek eskatu gabe aurkeztu beharko dira eta horretarako diru-laguntza jaso duen programa edota jarduera bukatu eta 30 eguneko epea egongo da. Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

- a).- Jarduera nola egin duten azaltzen duen memoria.
- b).- Diruz lagundutako jardueraren behin betiko balantzea eta gastuen banakapena.

- b.1).- Egiaztatutako gastuak faktura bidez egin direnak izango dira eta fakturan honako hauek agertu beharko dira: izen-abizenak edo gizarte izendapena, NAN edo IFK, eguna, zer egin den eta balioa guztira, jasoagiria eta faktura jaso duenaren sinadura.
- b.2).- Bankuko zordunketaren kargura egindako ziurtagiri edo egiaztatutako bidez ziurtatuak.

Edonola ere jatorrizko agiriak baino ez dira onartuko eta horrelakorik izan ezean egiaztatutako fotokopia.

14. artikulua.- Baldintzak ez betetzea eta diru-laguntza itzuli beharra

Lortutako diru-laguntza eta diru-laguntza eman zaionetik sortutako interesak, itzuli egin beharko dituzte honako kasuren bat gertatuz gero:

- a).- Diru-laguntza zertarako erabili duten ziurtatu ez badute.
- b).- Diru-laguntza oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete gabe lortu baldin badute.
- c).- 2. artikuluan agertzen diren baldintzak betetzen ez badituzte edo jarduerak egitean kasuan kasu aplikatu behar den araudia betetzen ez badute.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat egonez gero eta beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, diru-laguntza ematea ebatzi duen ebazpena aldatu ahal izango da.

15. artikulua.- Arau-haustea.

Aurreko artikuluan agertzen diren kasuetan dolua, errua edo arduragabekeria egon baldin bada administrazio urratze gisa hartu ahal izango dira. Urratze horien ardura diru-laguntza jaso dutenena izango da.

Egindako urratzeak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

16. artikulua.- Araudi orokorra.

Ordenantza honetan xedatutako diru-laguntzak araudi honetan ezarritakoari nahiz diru-laguntza ematea erabakitzen duen ebazpenean ezartzen denari jarraiki arautuko dira. Kontuan hartuko dira, halaber, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2007 Legetik aplikagarri diren artikulak.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira Santurtziko Udalak 2003ko otsailaren 28an egin zuen 2/2003 Aparteko Osoko Bilkuran hasierako izaeraz onetsi ziren kultura, aholkularitza, promozio eta informazio jarduerak antolatzeko Santurtziko udalerriko emakume talde eta/edo erakundeei, elkarteei zein pertsona fisikoei diru-laguntzak ematea arautu duen araubidearen oinarriak, eta baita ordenantza honi aurka egiten dioten bestelako ordenantzak, araudiak edo udal bandoak ere.